



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2013KO URRIAREN 28KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Ohiko bilera.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2013.10.28.
Ordua: Arratsaldeko 18:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Koldobike Gorostiza Uriguen and.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Ander Almandotz Indakoetxea jn.
Jose Ignacio Madariaga Vergara jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-2012ko abenduko aparteko osagarria anulatzeko errekerimendua.
- 3.- 2014ko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak.
- 4.-Bortzirietako Euskara Mankomunitatea: estatutuen aldaketa.
- 5.-Bortzirietako Hiri-hondakinen Mankomunitatea: estatutuen aldaketa.
- 6.-Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea:estatutuen aldaketa.
- 7.-Epaiketa politikoari buruz.
- 8.-Bertizko Partzuergo Turistikoa: Euskal Herriko Itzuliari buruz.
- 9.-Giltzarri Abesbatza: diru laguntza eskaera.
- 10.-Frontoiko koltxonetari buruz.
- 11.-Cornelio Ubiria Leiza jauna: trukaketa eskaera.
- 12.-Alkatearen ebazpenak.
- 13.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2013ko urriaren 4an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE.

2.-2012KO ABENDUKO APARTEKO OSAGARRIA ANULATZEKO ERREKERIMENDUA.

2013ko irailaren 12an ailegatu zen Gobernuko Ordezkaritzatik 2012ko abenduko osagarria ordaintzeko akordioa anulatzeko errekerimendua. Ondoren, Estatuko Gobernuaren Ordezkaritzak Udalaren erabakiaren aurka aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoari dagokionez.

Azaldutakoa ikusirik, aho batez ERABAKI DUTE:

1) Ikusirik 331/2013 prozedura arrunta, xedatzea erabaki hau interesdunei jakinaraz dakiela Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, eta haiek epatzea autoetan demandatu gisa ager eta pertsona daitezen, bederatzi eguneko epean; aditzera ematen zaie beren eskubideen defentsan erabili nahi dituzten froga guztiak ekarri beharko dituztela, eta ohartarazten zaie hala egin ezean egintzak beraiek gabe izanen duela segida.

2) Espedientea igortzea, egindako epatzeekin batera, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegira.

3) Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegian agertu eta pertsonatzea, hartutako erabakiaren legezkontasuna defendatzera, erabaki honetako aurreko puntuan aipatu prozedura arruntari dagokionez.

4) Prozedura honetako prokuradore Miguel González Oteiza jauna izendatzea, eta Udaleko Alkateari ahalmena ematea prokuradore izendatuari auzietarako ahalordea emateko, baita ekitaldiaren espedienteari erantsitako zerrendan ageri diren gainerako profesionalei ere.

5) Zuazu Abogados bulegoa izendatzea prozesu judizialeko legelari zuzendaritza bere gain har dezan.

6) Erabaki hau igortzea Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 3. Epaitegiari, Miguel González Oteiza prokuradoreari eta Zuazu Abogados bulegoari, behar diren ondorioak izan ditzan.

3.- 2014KO KARGA TIPOAK, TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK.

Aztertu ondoren indarrean dauden karga tipoak, tasak eta prezio publikoak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Orain arteko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak mantentzea eta ez igotzea.

4.-BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA: ESTATUTUEN ALDAKETA.

Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzorde Erabakitzaileak, 2013ko ekainaren 18an egindako bileran, hasiera batez onartu zuen mankomunitatearen estatutuen 29.artikulua aldatzeko prozedura (Nafarroako Parlamentuak onartu duen 19/2013 Foru Legearen arabera, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jarri eta prozesua burutu ahal izateko).

Ikusirik jendaurrean egondako epean ez dela alegaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu eta Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako Departamentuak ere aldeko txostena eman duela.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 50. artikulua arabera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Bortzirietako Euskara Mankomunitateko estatutuen 29. artikulua aldatzeko behin betiko onestea, 29.artikulua edukia berria hau izanik ondorioz: "Mankomunitateak bere



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

zerbitzuak emateko behar dituen langileak kontratatuko ditu, eta lanpostuak plantillari egokituz beteko ditu, indarrean dagoen legediak xedatutakoari jarraituz.”

2) Akordio hau Bortzirietako Euskara Mankomunitateari jakinaraztea.

5.-BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA: ESTATUTUEN ALDAKETA.

Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateko Juntak, 2013ko uztailaren 15ean egindako bileran, hasiera batez onartu zuen mankomunitatearen estatutuen 37.artikulua aldatzeko prozedura (Nafarroako Parlamentuak onartu duen 19/2013 Foru Legearen arabera, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jarri eta prozesua burutu ahal izateko).

Ikusirik jendaurrean egondako epean ez dela alegaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu eta Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Departamentuak ere aldeko txostena eman duela.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 50. artikulua arabera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateko estatutuen 37. artikulua aldatzeko behin betiko onestea, 37.artikulua edukia berria hau izanik ondorioz: ”Plantilla organikoa osatuko dute lan kontratadun edo funtzionario gisa Mankomunitateak kontratatutako langileek. Mankomunitateak kontratatuko ditu behar dituen langileak, eta haien lanpostuak plantilla organikoari jarraikiz eta indarra duen araudiari lotuz beteko dira”.

2) Akordio hau Bortzirietako Hiri-Hondakinen Mankomunitateari jakinaraztea.

6.-BORTZIRIETAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA: ESTATUTUEN ALDAKETA.

Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko Juntak, 2013ko ekainaren 5ean egindako bileran, hasiera batez onartu zuen mankomunitatearen estatutuen 30.artikulua aldatzeko prozedura (Nafarroako Parlamentuak onartu duen 19/2013 Foru Legearen arabera, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jarri eta prozesua burutu ahal izateko).

Ikusirik jendaurrean egondako epean ez dela alegaziorik, kexarik edo oharrik aurkeztu eta Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Departamentuak ere aldeko txostena eman duela.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 50. artikulua arabera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateko estatutuen 30. artikulua aldatzeko behin betiko onestea, 30.artikulua edukia berria hau izanik ondorioz: ”Plantilla organikoa osatuko dute lan kontratadun edo funtzionario gisa Mankomunitateak kontratatutako langileek. Mankomunitateak behar dituen langileak kontratatuko ditu, eta haien lanpostuak plantilla organikoari jarraikiz eta indarra duen araudiari lotuz beteko”

2) Akordio hau Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari jakinaraztea.

7.-EPAIKETA POLITIKOARI BURUZ.

Datorren urriaren 14an eta 17an hamarnaka Euskal Herritarren aurkako epaiketa hasten da Espainiako Entzutegi Nazionalean. Azken urteetan zain egon ondoren, batzuen kasuan gainera hamar urte baino gehiago, epaiketa azken urratsera heldu da.

Urteetako ibilbideak argi eta garbi erakutsi du, salbuespeneko legediaren itzalean, lan politikoa egiten ari ziren euskal herritarrak zigortu dituztela. Ehunka izan dira herri honetan, hauteskundeetan parte hartu nahi izateagatik, herri proiektuak aurrera ateratzen lana egiteagatik, sektore desberdinen kezka bere egin eta politikoki erantzuteagatik auziperatu eta kartzelaratu dituztenak.

Euskal Herrian, konponbide eta bake haizea indartsu dabilen honetan, iraganeko egoeretara itzultzerik ez du onartzen gizarteak. Sufrimendu fasea gainditu eta elkarrizketa, akordioa eta aukera politiko guztiekiko errespetua oinarri izango duen egoera behar dugu. Eta kontrako norabidean ematen diren urratsak baztertu egin behar direla argia da.

Datorren urri honetarako aurreikusita dauden bi epaiketa hauek, eta jarraian burutuko direnak testuinguru berean emango direla kontutan hartuta, garai berria zabaltzeko Euskal herriak agertu duen erabakiari eraso egiten diete, konponbide baketsua blokeatu asmoz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Ez daitezela epaiketa politiko gehiagorik egin.
- 2) Eskandaluzko instrukzio bidegabeetan oinarritutako epaiketa guztiak artxiba daitezela.
- 3) Prozedura judizial guztietatik etsaiaren zigor zuzenbidearen aplikazioa desager dadila.
- 4) Aniztasun politikoa eta elkartzeko, adierazpen nahiz askatasun politikorako funtsezko eskubideak baldintzarik gabe errespetatu daitezela.
- 5) Elkarbizitza demokratikorako oinarri sendoak ezar ditzagula.

8.-BERTIZKO PARTZUERGO TURISTIKOA: EUSKAL HERRIKO ITZULIARI BURUZ.

Adierazten da Bertizko Partzuergo Turistikoak 2014. urtean Euskal Herriko itzuliaren Baztan-Bidasoan pasatzeko proiektua lantzen ari dela.

Gaia hobeto aztertu ondoren hurrengo bileran erabakiko da.

9.-GILTZARRI ABESBATZA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Giltzarri Abesbatzak aurtengo kontzertua Arantzan emanen du azaroaren 9an eta lesakarra zen Pascual Aldaveren omenez.

Ikusirik taldeak aurkeztutako diru laguntza eskaera hori burutzeko,

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Giltzarri Abesbatzari 150,00 euro diru laguntza ematea, karteletan emandako laguntzaren berri jartzeko baldintza pean.

10.-FRONTOIKO KOLTSONETARI BURUZ.

Ikusirik frontoiko koltsonetaren eta markadoreen egoera.

Ikusirik teilatuan ere itxaxuren bat ere badagoela.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Koltxoneta eta markadoreak erosteko aurrekontuak eskatzea.
- 2) Itxaxurak moldatzeko udaleko aseguruari parte ematea.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

11.-CORNELIO UBIRIA LEIZA JAUNA: TRUKAKETA ESKAERA.

Ikusirik Cornelio Ubiria Leiza jaunak aurkeztutako eskaera 6. poligonoko 336. lur zatiaren azalera 1. poligonoko 290. lur zatiarekin trukatzeko, horrela 1. poligonoko 89. lur zatian duen borda ingurua lurra partikularra lortzeko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Cornelio Ubiria Leiza jaunak eskatutako trukaketa ez egitea.

12.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2013ko 70tik 75. arte).

13.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 20:30ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Jaime Iturria Mitxelena jn.



